

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

#### **201/2019, Foru Agindua, apirilaren 23koa. Onespena ematea etiketak edo sustapen ekintzak egiten dituzten Arabako Errioxako upeltegiek ardoen etiketak berritzeko laguntzen 2019rako deialdiari**

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 11ko 46/2018 Foru Dekretuaren bidez, onspena eman zitzaien Errioxako JDKaren Kontseilu Arautzaileak ezarritako baldintza berriekin etiketak edo sustapen ekintzak egin zituzten upeltegiei zuzendutako laguntzen oinarri arautzaileei eta laguntza horien 2018rako deialdiari.

Laguntza horiek izapidetzeko prozeduraren barruan, aipatutako dekretuaren 7. artikulua xedatzen du urtero deialdi bat onetsiko dela. Deialdian, laguntza lerro bakoitzeko eskaerak aurkezteko epea adieraziko da, eta laguntzak emateko erabiliko diren kredituak zehaztuko dira.

Etiketarako eta sustapenerako laguntza ematen jarraitu behar denez, proposatzen da 2019rako deialdia onestea eta hari aurre egiteko behar besteko kreditua gordetzea.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onspena ematea etiketak edo sustapen ekintzak egiten dituzten Arabako Errioxako upeltegiek ardoen etiketak berritzeko laguntzen 2019rako deialdiari, zehaztasun hauek kontuan hartuko direlarik:

- Epea: laguntza eskaerak 2019ko irailaren 1etik 30era arte, biak barne, aurkeztuko dira.
- Kreditu erreserba: 75.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko gastu aurrekontuko "Arabako Errioxako etiketa berrien upeltegien hitzarmena" 40.1.04.44.00.423.90.01 partidaren kargura.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidan edozein zioengatik gerta daitekeen kreditu gehikuntzagatik ere.

– Deialdi honetan, laguntza ordaintzeko, gauzatutako ekintzak onartuko dira; hain zuzen ere, 2018ko urriaren 11 eta 2019ko irailaren 30 bitartean, biak barne, fakturatutako eta ordaindutako ekintzak.

– Laguntza eskaerarekin batera, 3. artikuluan zehazten den ekintzen justifikazio dokumentazioa aurkeztu beharko da. Halaber, Errioxa Jatorrizko Deitura Kalifikatuaren Kontseilu Arautzaileak egindako adierazpenaren fotokopia konpultsatua aurkeztuko da, eta bertan jasoko dira 2018ko uzta, eta eremuko, udalerriko edo mahasti bereziko ardoari buruzko azalpen berriak.

Bigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 23a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*  
**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*  
**MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**